

ERREZELA ITXITA

Garazi Ansa Arbelaitz, 16 urte

Oiartzun

Errezela itxi didate,
nire bizitzara jada
ez dira eguzki izpiak iristen,
ez egunsentikorik,
ez eta ilunabarrekorik ere.

Errezela itxi didate,
nire bizitzara jada,
ez da haizearen laztanik iristen,
ez goizaldeko ihintzarekin datorrenik,
ez eta ilunabarreko epeltasunarekin datorrenik ere.

Apika,
nik nahi nuelako itxi didate errezela.
Apika,
gizartea saihesteko itxi didate errezela.
Apika,
mundua alderantziz ikusteko itxi didate errezela.

Hodeiak kotoi bihurtu dira,
ipuinetan, beti kotoiarekin parekatzen dituztelako,

edo,
gizartetik at sentitzen zirelako.
Baina hodeiak hodei izaten jarraitzen du...
Izenak ez du izana egiten...

Itzalak bizia hartu du,
eta ni itzal bihurtu naiz,
bizitza bizitu nahi zuelako,
edo,
zapaldua izaten nazkatua zegoelako.
Orain ulertzen dut...
Berdintasuna ukatzen diogu...

Eta oharkabean,
neure burua chupas-aren ahoan ikusi dut,
nire zaporea dastatu nahi zuelako,
edo,
nire jabe izan nahi zuelako.
Baina ez zuen hori nahi,
Chupa chups-ari malko bat irten zaio,
bizitzeko eskubidea nahi du...

Gozoki bat dago lata batean sarturik,
eta hitz egiten hasi zait:
“zergatik nago lata batean sarturik?”
Baina,
nik ezin diezaioket erantzun...
“Aske izan nahi dut...” dio
Mutu nago ordea...

Mutu gizartearen aurrean...
mutu zeure aurrean...
pentsamenduak ezin irakurri...
ezin iragarri...
eta mundua ez dago alderantziz...
soilik errezela itxi didate...
errezela itxi didate...
munduak erakutsi didana,
nik munduari erakuts ez diezaiodan...